

**INDUSTRI, NEKAZARITZA
ETA ARRANTZA SAILA****Zk-3853**

168/1997 DEKRETUA, uztailaren 8koa, Euskal Autonomi Elkarteke lehentasunezko nekazaritza-ustiapenak eta EAEko eskualdeetako eta lurralde historikoe-tako laborantzarako gutxieneko unitateak zehazten dituena.

Euskal nekazaritza-ustiapen tradizionalak egituretan aldaketa sakonak jasan ditu azken hamarkadetan. Teknologia oinarri duen ustiapen-eredu batera pasatzeak eta, duela gutxi, Europako Elkartera sartzeak egokitzapen-prozesu zaila ekarri dute, bai eta erronka bat ere. Horietarik, oro har, gure ustiapena ondo atera da eta normaltasunez sartu da zabalagoa, konplexuagoa eta esijenteagoa den merkatu batera.

Hala eta guztiz ere, nagusi den nekazaritza ereduak gorde egin du funtsean familiakoa den ustiapena. Horrek lurraldearen kolonizazioa eta landa-sarearen iraupena bermatu badu ere, egitura mailako hutsuneak ere baditu, zuzendu beharrekoak direnak, hain zuzen. Ustiapen askok hedapen eskasa izatea, horien titularrak zahartzea, lurraldearen zurruntasuna, titular batzuek gaitasun profesional eskasa izatea, nekazaritzako ekoizpen eta merkaturatzearen inguruko sektoreak artikulatuko dituzten elkarte eta erakundeak ez egotea, besteak beste, bihar-etziko bideragarritasuna kolokan jartzen duten hutsuneetako batzuk dira.

Behar-beharrezkoa da, beraz, egitura mailan dauden hutsune horiekin bukatzea eta nekazaritza-ustiapenak modernizatzea, beren eraginkortasuna eta lehiakortasuna hobetu ahal izateko. Modernizatzea ekoizteko ahalmena handitzea ez ezik, ekoizpenaren baldintzak eta kalitatea hobetzea, kostuak jeistea eta ekoizpenaren birregituraketa eta dibertsifikazioarekin hastea ere bada; azken finean, nekazaritzan jarduten dutenen bizi eta lan baldintzak hobetzeko, batetik, eta, bestetik, natura zaintzeko eta aisialdia nekazaritza-inguruneetan auzetako herritarrek egiten duten eskaerari erantzuteko, horrela lortuko da-eta nekazaritzaren funtzio-aniztasuna.

Kontseiluaren 1991ko uztailaren 15eko 2328/91 Erregelamenduak (EEE) —hainbat aldiz aldatua—, nekazaritza-egituren eraginkortasuna hobetzeari buruzkoa baita, aipatu helburua lortzeko dirulaguntza batzuk ezarri zituen, besteak beste; bertan ezarri ziren dirulaguntza horiek lortzeko baldintzak. Hori EAEk garatu du, gai horretan duen eskuduntza medio, Euskal Autonomi Elkarteke nekazaritza-ustiapenei laguntza emateari buruzko uztailaren 30eko 210/1990 Dekretuaren —hainbat aldiz aldatua— bitartez.

Ondoren, Nekazaritzako Ustiapenak Modernizatzeari buruzko uztailaren 4ko 19/1995 Legea argitaratu da. Bertan ezartzen dira hainbat onura fiskal eta lehentasunezkoak, «lehentasunezko ustiapenak» deituriko kontzeptuari loturik dauden laguntza publikoak eta esku-

**DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
AGRICULTURA Y PESCA****Nº-3853**

DECRETO 168/1997, de 8 de julio, por el que se regulan las Explotaciones Agrarias Prioritarias en la Comunidad Autónoma del País Vasco y se determinan las unidades mínimas de cultivo en los distintos Territorios Históricos y Comarcas de la C.A.P.V.

La explotación agraria vasca tradicional se ha visto sometida a profundos cambios estructurales en las últimas décadas. El paso a un modelo de explotación basado en la tecnología y, más recientemente, la integración en la Unión Europea ha supuesto un difícil proceso de adaptación y un reto de los que, en líneas generales, ha sabido salir airoso, incorporándose con normalidad a un mercado más amplio, complejo y exigente.

No obstante, el modelo agrario dominante ha mantenido el carácter básicamente familiar de las explotaciones que, si bien constituye una garantía de colonización del territorio y de mantenimiento del tejido rural, implica la pervivencia de deficiencias estructurales que hay que tratar de corregir. La insuficiente dimensión de muchas explotaciones, el envejecimiento de sus titulares, la rigidez en el mercado de la tierra, la insuficiencia de la capacitación profesional de algunos de sus titulares o la ausencia de organizaciones y agrupaciones asociativas que articulen los diversos sectores de la producción y comercialización agrarias, son algunas de esas deficiencias que condicionan su viabilidad futura.

Es preciso, por tanto, atajar esas deficiencias estructurales y modernizar las explotaciones agrarias a fin de mejorar su eficacia y competitividad. Modernización que no sólo consiste en aumentar la capacidad de producción, sino también en mejorar la calidad y las condiciones de la producción, reducir sus costes, abordar reestructuraciones y diversificaciones de la producción y, al fin, mejorar las condiciones de vida y trabajo de los que se dedican a la actividad agraria por una parte y responder, por otra, a las demandas sociales de conservación del medio natural y de ocio en el medio rural, consagrando así su multifuncionalidad.

El Reglamento (CEE) número 2328/91, del Consejo, de 15 de julio de 1991, sucesivamente modificado, relativo a la mejora de la eficacia de las estructuras agrarias establece una serie de líneas de ayudas para lograr estos objetivos, entre otros. En él se fijan las condiciones básicas para poder acceder a esas líneas de ayudas, lo que ha sido desarrollado por la CAPV en virtud de su competencia sobre la materia, por medio del Decreto 210/1990, de 30 de julio, sucesivamente modificado, sobre ayudas a las explotaciones agrarias del País Vasco.

Posteriormente ha sido publicada la Ley 19/1995, de 4 de julio, de Modernización de las Explotaciones Agrarias. En ella se establecen diversos beneficios de tipo fiscal y de preferencia para acceder a derechos y ayudas públicas ligados al concepto de «Explotaciones

bideak eskuratzeko; kontzeptu batzuk aldatu egin dira, bai Legeria Zibilarenak (eskualdaketak, hainbat landa funtsen banaezintasuna eta mugakideen alde atzera egiteko eskubidea), bai landa errentei buruzkoak, horietan garrantzitsua delarik «lehtasunezko ustiapenak» deituriko kontzeptua. Lege horien idazati batzuk garatu egin dira 1995eko abenduaren 13ko agindu batez.

Bidezko da, beraz, eta horixe da dekretu honen helburua, Euskal Autonomi Elkartean lehtasuna izango duten ustiapenak definitzeko irizpideak ezartzea eta bere lurralde eremuko laborantzarako gutxieneko unitateak zehaztea. Dekretu hau prestatzerakoan lurralde historiko bakoitzeko foru aldundietako organo eskudunek iritzia eman dute eta parte hartu dute. Hori guztiori, 19/1995 Legean agindutakoaz bat etorri eta EAek gai horren inguruan dituen eskumenei kalterik eragin barik.

Ondorioz, Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren proposamenez eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1997ko uztailaren 8an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

1. atala. – Xedea

1.– Euskal Autonomi Elkartean lehtasuna izango duten ustiapenak definitzeko irizpideak ezartzea eta bertako lurralde eremuko laborantzarako gutxieneko unitateak zehaztea da dekretu honen helburua.

2.– Euskal Autonomi Elkarteko nekazaritza-ustiapentzat hau hartuko da: instalazio gehienak eta egoitza fiskala Euskal Autonomi Elkartean dutenak.

2. atala. – Definizioak

1.– Dekretu honetan xedatutako ondorioetarako:

1.1.– Nekazaritza-ustiapena hau izango da: nekazaritzako ekoizpenerako —funtsean, merkaturatzeko— titularrak edo kotitularrek enpresarialki antolatutako ondasun eta eskubideen multzoa; multzo horrek, unitate tekniko-ekonomikoa osatzen du, ekoizpenerako baliabide berak erabiliko ditu eta kudeaketa bakarra izango du.

1.2.– Ustiapenaren titularra: nekazaritza-jarduera burutzen duen pertsona fisikoa nahiz juridikoa, ustiapena osatzen duten eskubideak eta ondasunak enpresari-irizpideekin antolatzen dituena, eta ustiapena kudeatzeagatik erantzukizun zibil, fiskal eta sozialak eta ekonomia-arriskuak bere gain hartzen dituena.

1.3.– Nekazari profesionala: nekazaritza-ustiapen baten titular izanik, bere errenta osoaren %50a nekazaritza-jardueretatik edo jarduera osagarri batzuetatik lortzen duena, baldin eta zuzenean nekazaritza-jardueratik lortutako errenta guztirako errentaren %25a baino beheragokoa ez bada eta nekazaritzako lanetan edo jarduera osagarrietan emandako denbora bere lanaldi osoaren erdia baino goragokoa bada.

Prioritarias», y se modifican algunos contenidos de la legislación civil (transmisiones, indivisibilidad de determinadas fincas rústicas y derechos de retracto en favor de colindantes) y de arrendamientos rústicos, en los que también resulta relevante el concepto de «explotaciones prioritarias». Esta ley ha sido objeto de desarrollo de desarrollo en algunos de sus apartados por medio de la Orden de 13 de diciembre de 1995.

Procede, por tanto, y es el objeto del presente Decreto, establecer los criterios para definir las explotaciones prioritarias en la Comunidad Autónoma del País Vasco y determinar la unidad mínima de cultivo en su ámbito territorial. En la elaboración de este Decreto han sido consultados y han participado los órganos competentes de las Diputaciones Forales de cada uno de los Territorios Históricos. Y todo ello de conformidad con lo prevenido en la Ley 19/1995 y sin perjuicio de las competencias que sobre estas materias ostenta la CAPV.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Industria, Agricultura y Pesca y previa deliberación y aprobación por el Consejo de Gobierno en su reunión del 8 de julio de 1997,

DISPONGO:

Artículo 1. – Objeto

1.– El presente Decreto tiene por objeto definir las explotaciones agrarias prioritarias de la Comunidad Autónoma del País Vasco y determinar la unidad mínima de cultivo en esta misma Comunidad.

2.– Se entenderá como explotaciones agrarias de la Comunidad Autónoma del País Vasco toda explotación que tenga la mayor parte de sus instalaciones y su domicilio fiscal dentro de su ámbito territorial

Artículo 2. – Definiciones

1.– A los efectos de lo dispuesto en el presente Decreto, se entiende por:

1.1.– Explotación Agraria, el conjunto de bienes y derechos organizados empresarialmente por su titular o cotitulares para la producción agraria, primordialmente con fines de mercado, y que constituyen en sí mismos una unidad técnico-económica caracterizada generalmente por la utilización de unos mismos medios de producción y una única gestión.

1.2.– Titular de la explotación, la persona física o jurídica que ejerza la actividad agraria, organizando los bienes y derechos integrantes de la explotación con criterios empresariales y asumiendo los riesgos económicos y las responsabilidades civiles, fiscales y sociales de la gestión de la misma.

1.3.– Agricultor profesional, la persona que siendo titular de una explotación agraria, al menos el 50 % de su renta total la obtenga de actividades agrarias u otras actividades complementarias siempre y cuando la parte de renta procedente directamente de la actividad agraria realizada en su explotación no sea inferior al 25 % de su renta total y el tiempo de trabajo dedicado a actividades agrarias o complementarias sea superior a la mitad de su tiempo de trabajo total.

1.4.- Nagusiki nekazaria: guztirako errentaren %50a bere ustiapenean burutzen den nekazaritza-jardueratik ateratzen duen nekazari profesionala, ustiapeneko jarduerekin lotuta ez dauden lanetan emandako denbora, guztirako lanaldiaren erdia baino beherago badago.

1.5.- Nekazaritzako lan-unitatea: nekazaritzako lanetara urtebetean egun osoz pertsona batek egiten duen lana.

1.6.- Laneko unitate-errenta: nekazaritza-ustiapenean sortzen den ekonomia-errendimendua, lan-unitateari egotzen zaiona; honela ateratzen da: ustiapenean diharduten nekazaritzako lan-unitateen kopurua, zati, ustiapenaren gaindikin garbia edo marjin garbia ordaindutako lansarien zenbatekoaz batuz ateratzen den zenbatekoa.

1.7.- Erreferentziako errenta: Espainian, nekazaritzakoak ez diren lansari gordinei buruzko indikatzailea. Horien zenbatekoa urtero zehaztuko da Europako Elkartearen Araudiaren arabera eta Estatistikako Institutu Nazionalak argitaratutako lansariei buruzko datuak kontutan hartuta.

2.- Dekretu honetan aurrikusi gabeko kontzeptuak eta definizioak, aplikatzeko beharrezkoak direnean, aplikagarri diren Europako Erregelamenduetan xedatutakora, Nekazaritzako Ustiapenak Modernizatzeari buruzko 19/1995 Legea eta Nekazaritzako Ustiapenen Erregistroa sortu zuen 84/1993 Dekretura joko da, aipatu hurrenkerari jarraituz.

3. atala.- Ondorioak

1.- Dekretu honen 4. ataletik 6. atalerarteko —biak barne— baldintza guztiak betetzen dituzten familiako nekazaritza-ustiapenak nahiz elkarte erakoak lehentasunezkoak izango dira, legeek aitortzen duten edo horrela kalifikatutako ustiapenei aitortu lekizkiokeen onurak, mota guztietakoak, lortzeko.

2.- Edozein kasutan ere, nekazaritza-jarduerarako eskualdeak arautzen dituen Europako Elkarteko Araudiari eta gai horretan EAEk Europako Elkartearen erregelamenduak garatzeko eta bere lurralde eremuan nekazaritza-jarduera antolatzeke duen eskumenari kalterik eragin gabe egingo da aurrez esandakoa.

4. atala.- Nekazaritza-ustiapenari buruzko baldintza objektiboak.

1.- Nekazaritza-ustiapen bat lehentasunezkoa izateko, ustiapenak baldintza objektibo hauek bete beharko ditu:

a) Nekazaritzako lan-unitate bat izan beharko du gutxienez.

Ustiapen bateko nekazaritzako lan-unitateak horretarako jarriko diren irizpide teknikoetan oinarritutako modulu objektiboen arabera zehaztuko dira.

Edonola ere, titularraren lana nekazaritzako lan-unitate gisa zenbatu ahalko da ordaindutako beste lanik ez duenean eta ustiategian soldatadun langile finkorik ez dagoenean.

1.4.- Agricultor a título principal, el agricultor profesional que obtenga al menos el 50% de su renta total de la actividad agraria ejercida en su explotación y cuyo tiempo de trabajo dedicado a actividades no relacionadas con la explotación sea inferior a la mitad de su tiempo de trabajo total.

1.5.- Unidad de trabajo agrario, el trabajo efectuado por una persona dedicada a tiempo completo durante un año a la actividad agraria.

1.6.- Renta unitaria de trabajo, el rendimiento económico generado en la explotación agraria que se atribuye a la unidad de trabajo y que se obtiene dividiendo entre el número de unidades de trabajo agrario dedicadas a la explotación la cifra resultante de sumar el margen neto o excedente neto de la explotación y el importe de los salarios pagados.

1.7.- Renta de referencia, indicador relativo a los salarios brutos no agrarios en España. Su cuantía se determinará anualmente de acuerdo con lo previsto en la normativa Comunitaria Europea y teniendo en cuenta los datos sobre salarios publicados por el Instituto Nacional de Estadística.

2.- Subsidiariamente, para definiciones y conceptos no previstos en el presente Decreto que fueran relevantes para su aplicación, se estará a lo dispuesto en los Reglamentos comunitarios que resulten de aplicación, la Ley 19/1995 de Modernización de las Explotaciones Agrarias y el Decreto 84/1993 por el que se crea el Registro de Explotaciones Agrarias, por este orden.

Artículo 3.- Efectos

1.- Las explotaciones agrarias familiares o asociativas que cumplan los requisitos establecidos en los artículos 4 a 6, ambos inclusive, del presente Decreto tendrán la consideración de prioritarias en orden a la obtención de los beneficios de todo tipo que las leyes otorgan o pudieran otorgar a las explotaciones así calificadas.

2.- En todo caso, lo anterior se entiende sin perjuicio de la normativa comunitaria que regula amplias zonas de la actividad agraria y de las competencias que en esta materia ostenta la CAPV para el desarrollo de las reglamentaciones comunitarias y ordenación de la actividad agraria en su ámbito territorial.

Artículo 4.- Requisitos objetivos relativos a la explotación agraria.

1.- Para que una explotación agraria tenga la consideración de prioritaria, la explotación deberá cumplir los siguientes requisitos objetivos:

a) Posibilitar la ocupación de, al menos, una unidad de trabajo agrario.

Las unidades de trabajo agrario correspondientes a una explotación se determinarán en función de módulos objetivos basados en los criterios técnicos que al efecto se fijen.

En cualquier caso, el trabajo del titular se podrá computar por una unidad de trabajo agrario cuando no tenga otra dedicación retribuida y no existan en la explotación trabajadores asalariados fijos.

b) Ustiapenetik lortzen den unitate-errenta erreferentziako errentaren %30aren parekoa edo goragokoa izatea eta % 120a baino beheragokoa, 19/1995 Legearen azken xedapenetatik hirugarrenaren bigarren idazatian xedatutakoaren arabera.

Aurrekoa gorabehera, eta 19/1995 Legearen azken xedapenetatik hirugarrenaren hirugarren idazatian xedatutakoarekin bat etorritz, familiako ustiapenek edota titular pertsona fisikoak dituzten beste batzuk eta elkarketez eratutakoek —bazkide gehienak mendiko edo eskualde behartsuetako nekazaritza-eremuetan dauden nekazari profesionalak baldin badira— lehenasuna izango dute ondorio guztietarako, baldin eta laneko unitate-errenta erreferentziako errentaren % 10aren parekoa edo goragokoa eta %120a baino beheragokoa baldin bada eta dekretu honetako 4. eta 5. ataletan jarritako betekizunak betetzen badituzte.

2.- Laneko unitate-errenta kalkulatzeko, ustiapenaren hedadura, kokapena, orientazio tekniko-ekonomikoa eta ekoizpen sistema kontutan hartuta, Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren agindu batez, urtero zehaztuko dira marjina gordinak, ustiapenari dagozkion nekazaritzako lan-unitateak zehazteko modulu objetiboak eta ustiapen horren gastu finkoen koefizienteak; hori guztiori gehigarritzako xedapenetatik lehenengoan eta bigarrenean 1997. urterako xedatzen denari kalterik egin gabe.

3.- Dena dela, ustiapenen titularrek beren laneko unitate-errentaren zehaztapena bere kontularitza datuen arabera egiazta dezakete edota Gizarte Segurantzari buruzko agirien bitartez.

5. atala.— Familiako nekazaritza-ustiapenen titularrei buruzko betekizun subjektiboak.

1.- Aurreko atalean aurreikusitakoaz gain, titularra pertsona juridiko bat duen nekazaritza-ustiapen bat lehenasunezkoa izateko, titular horrek baldintza hauek bete beharko ditu:

a) Nekazari profesionala izatea.

b) Lanbide heziketa maila egokia izatea edo instalatu eta hortik gehienez ere bi urteren barruan lortzea, Euskal Autonomi Elkarteko nekazaritza-ustiapenei laguntzak emateari buruzko uztailaren 30eko 210/1990 Dekretuan ezarritakoarekin bat etorritz.

c) 18 urte beteta izatea eta 65 bete gabe izatea.

d) Halabeharrez edota ageri-ageriko beharrez denean izan ezik, egoitza ustiapena kokaturik dagoen eskualdean edo inguruko eskualderen batean izatea, EAEk bere lurralde-antolamenduan eskualdeari emandako definizioaren arabera.

2.- Senar-emazteen edota elkarbizitza egiten duten bikoteen kasuan, ustiategiaren titularitatea biena izan daiteke, nahikoa izango delarik aurreko idazatik baldintzak batek bakarrik betetzea.

3.- Nekazaritza-ustiapenak jaraunspenezko komunitate batekoak badira, gutxienez sei urtetan ustiatagia ez banatzeko hitzarmena egin beharko da eta komunitate horretako partaide batek gutxienez atal honetako 1.

b) Que la renta unitaria de trabajo que se obtenga de la misma sea igual o superior al 30 % de la renta de referencia e inferior al 120 % de ésta, de conformidad con lo dispuesto en el apartado segundo de la disposición final tercera de la Ley 19/1995.

No obstante lo anterior, y de acuerdo con lo previsto en el apartado tercero de la disposición final tercera de la Ley 19/1995, las explotaciones familiares u otras cuyos titulares sean personas físicas y las explotaciones asociativas en las que la mayoría de sus socios sean agricultores profesionales situadas en zonas de agricultura de montaña o desfavorecidas, tendrán la consideración de prioritarias a todos los efectos cuando que la renta unitaria de trabajo sea igual o superior al 10 % de la renta de referencia e inferior al 120 % de ésta y siempre que se cumplan el resto de los requisitos establecidos en los artículos 4 y 5 del presente Decreto.

2.- A los efectos del cálculo de la renta unitaria de trabajo, anualmente y teniendo en cuenta la dimensión, ubicación, orientación técnico-económica y sistema de producción de la explotación, mediante Orden del Consejero de Industria, Agricultura y Pesca, se fijarán los márgenes brutos, los módulos objetivos para determinar las unidades de trabajo agrario que corresponden a la explotación y los coeficientes de gastos fijos de esa explotación, sin perjuicio de lo dispuesto para el año de 1997 en las disposiciones adicionales primera y segunda.

3.- En cualquier caso, los titulares de las explotaciones podrán acreditar la determinación de la renta unitaria de trabajo en base a sus datos contable o mediante la documentación relativa a la Seguridad Social.

Artículo 5.— Requisitos subjetivos relativos a los titulares explotaciones agrarias familiares.

1.- Además de los previstos en el artículo anterior, para que una explotación agraria cuyo titular sea una persona física tenga la consideración de prioritaria, el titular deberá cumplir los siguientes requisitos:

a) Ser agricultor profesional.

b) Poseer un nivel de formación profesional suficiente o adquirirla, a más tardar, dos años después de su instalación, conforme a lo establecido en el Decreto 210/1990, de 30 de julio sobre ayudas a las explotaciones agrarias del País Vasco.

c) Haber cumplido 18 años y no haber cumplido 65.

d) Residir, salvo caso de fuerza mayor o necesidad manifiesta, en la comarca donde esté ubicada la explotación o en las comarcas limítrofes según la definición comarcal efectuada por la CAPV en su organización territorial.

2.- En caso de matrimonio o convivencia, la titularidad de la explotación podrá recaer en ambos cónyuges, siendo suficiente que uno de ellos cumpla los requisitos contemplados en apartado anterior.

3.- En el caso de explotaciones agrarias que pertenezcan a una comunidad hereditaria, deberá existir un pacto de indivisión por un periodo mínimo de seis años y al menos uno de los partícipes deberá cumplir los

idazatian zehaztutako baldintzak bete beharko ditu. Ez banatzeko aldia ustiapena lehenasunezko gisa kalifikatzeko eskabidearen egunetik hasiko da zenbatzen.

6. atala. – Elkarketa-ustiapenak

1. – Elkarta-ustiapen bat lehenasunezkoa izateko, 4. atalean jarritako baldintzak betetzeaz gain, honelako modalitatearen batekoa izan beharko du:

a) Kooperatiba-sozietatea izatea, bai lurra komunitatean ustiatzekoa, bai lana elkarrean egitekoa.

b) Kooperatiba-sozietatea izatea edota eraldaketarako nekazaritza-sozietatea izatea.

c) Sozietate zibila izatea, laborala edo merkataritza-koa. Sozietate zibilek eskritura publiko baten bidez eratuak izan beharko dute. Anonimoak direnean, akzioek izendunak izan beharko dute eta kapital sozialaren %50ak, egonez gero, nekazari profesionalena izan beharko du. Sozietate horien helburua titular direneko ustiapeneko nekazaritza-jarduera burutzea izango da soil-soilik.

d) Elkarketa-ustiategiak izatea, muga bakarrean ustiategiaren azaleraren bi herenak (2/3), gutxienez, elkartez eratuak, bazkide batek emandako azalera ezingo delarik izan azalera guztiaren %40a baino goragokoa. Ustiapen hauetan bazkide batek behintzat nagusiki nekazaria izan beharko du eta familiako ustiapenen titularrentzat 5. ataleko 1. idazatian jasotako baldintzak bete beharko ditu.

2. – Aurreko idazatik b) eta c) letretan adierazitako sozietateek honako baldintzaren bat bete beharko dute:

a) Bazkideen %50a nekazari profesionalak izatea.

b) Kudeaketaz eta administrazioaz arduratzen diren bazkideen bi herenak nekazari profesionalak izatea, 5. ataleko 1. idazatian jasotako baldintzak betetzea eta ustiategian egindako lanaren bi heren (2/3) eman ditza-tela, gutxienez.

7. atala. – Laborantzarako gutxieneko unitateak EAEn.

Nekazaritzako ustiapenak modernizatzeari buruzko uztailaren 4ko 19/1995 Legearen 23. ataletik 27.era — biak barne —, EAEko eskualde eta lurralde historikoetarako, sekain-lurrei eta ureztatutako lurrei dagokienez, laborantzarako gutxienezko unitateei buruz agindutakoaren ondorioetarako, laborantzarako gutxienezko unitateak hauek izango dira:

requisitos señalados en el apartado 1 de este artículo. El periodo de indivisión se contará a partir de la solicitud de calificación de la explotación como prioritaria.

Artículo 6. – Explotaciones asociativas.

1. – Para que una explotación asociativa tenga la consideración de prioritaria, además de cumplir los requisitos previstos en el artículo 4, deberá responder a cualquiera de las siguientes modalidades:

a) Ser sociedad cooperativa de explotación comunitaria de la tierra o de trabajo asociado.

b) Ser sociedad cooperativa o sociedad agraria de transformación.

c) Ser sociedades civiles, laborales u otra mercantiles. En el caso de que sean sociedades civiles deberán estar constituidas en escritura pública. En el caso de que sean anónimas, sus acciones deberán ser nominativas y más del 50% de su capital social, de existir éste, deben pertenecer a socios que sean agricultores profesionales. Estas sociedades tendrán por objeto exclusivo el ejercicio de la actividad agraria en la explotación de la que sean titulares.

d) Ser explotaciones asociativas que se constituyan agrupando, al menos, 2/3 partes de la superficie de la explotación bajo una sola linde, sin que la superficie aportada por un solo socio supere el 40% de la superficie total. En estas explotaciones al menos un socio debe ser agricultor a título principal y cumplir las restantes exigencias contempladas en el apartado 1 del artículo 5 por los titulares de explotaciones familiares.

2. – Las sociedades señaladas en las letras b) y c) del apartado anterior deberán cumplir alguno de los siguientes requisitos:

a) Que al menos el 50% de los socios sean agricultores profesionales.

b) Que los dos tercios de los socios que sean responsables de la gestión y administración sean agricultores profesionales, cumplan los demás requisitos del apartado 1 del artículo 5 y que aporten 2/3, al menos, del volumen del trabajo desarrollado en la explotación.

Artículo 7. – Unidades mínimas de cultivo en la CAPV.

A los efectos de lo dispuesto en los artículos 23 a 27, ambos inclusive, de la Ley 19/1995, de 4 de julio, de Modernización de las Explotaciones Agrarias, sobre el régimen de las unidades mínimas de cultivo, en las distintas Comarcas y Territorios Históricos de la CAPV para secano y regadío, las unidades mínimas de cultivo serán las siguientes:

	SEKAIN -LURRA	UREZTATUTAKO LURRA
ARABA LURRALDE HISTORIKOA.		
ESKUALDEA		
ARABAR ARANAK	3 Ha.	3 Ha.
ARABAR LAUTADA	3 Ha.	3 Ha.
ARABAKO MENDIAK	2 Ha.	2 Ha.
ARABAR ERRIOKA	2 Ha.	Ha. 1
GORBEIAKO MENDI-INGURUAK	2 Ha.	2 Ha.
ARABAR KANTAURIKO MENDIZERRA	Ha. 1	Ha. 1
GIPUZKOA LURRALDE HISTORIKOA	Ha. 1	Ha. 1
BIZKAIA LURRALDE HISTORIKOA	0,75 Ha.	0,75 Ha
	<i>SECANO</i>	<i>REGADÍO</i>

*TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA.**COMARCA*

<i>VALLES ALAVESES</i>	<i>3 Has.</i>	<i>3 Has.</i>
<i>LLANADA ALAVESA</i>	<i>3 Has.</i>	<i>3 Has.</i>
<i>MONTAÑA ALAVESA</i>	<i>2 Has.</i>	<i>2 Has.</i>
<i>RIOJA ALAVESA</i>	<i>2 Has.</i>	<i>1 Ha.</i>
<i>ESTRIBACIONES DEL GORBEA</i>	<i>2 Has.</i>	<i>2 Has.</i>
<i>CANTÁBRICA ALAVESA</i>	<i>1 Ha.</i>	<i>1 Ha.</i>

TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

1 Ha. 1 Ha.

TERRITORIO HISTÓRICO DE BIZKAIA

0,75 Has. 0,75 Has

8. atala. – Ustiatgien kalifikazioa.

1.– Dekretu honetan ezarritako betekizunak betetzen dituzten nekazaritza-ustiapenak «lehentasunezko nekazaritza-ustiapenak» izango dira.

2.– Horretarako, Euskal Autonomi Elkarteko Nekazaritzako Ustiapenen Errolda sortu eta arautu zuen 1993ko martxoaren 30eko 84/1993 Dekretuan xedatutakoaz bat etorritz, lurralde historiko bakoitzean, nekazaritza-ustiatgien erregistroaren ardura duen bulegoak betekizunak betetzen direla egiaztatu, eta, interesatuak eskaturik, «lehentasunezko nekazaritza-ustiapena» kalifikazioa emango du.

Halaber, Erregistroko bulegoek kalifikazio horri dagozkion egiaztagirak emango dituzte, hala behar izanez gero.

3.– 19/1995 Legea garatzen duen 1995eko abenduaren 13ko Aginduan xedatutakoaz bat etorritz, aipatu kalifikazioa eman eta ondorengo bost urteetan lehentasunezko ustiapen batean laneko unitate-errenta batean izandako aldaketek —dekretu honen 4. atalako 2. idazatian aurreikusitako modulu eta marjina garbiak urtero eguneratzearen ondorioz sortuak— ez dute eraginik izango kalifikazioarekiko aldi horretan.

Artículo 8. – Calificación de las explotaciones.

1.– Las explotaciones agrarias que cumplan los requisitos establecidos en el presente Decreto tendrán la consideración de «explotaciones agrarias prioritarias».

2.– A tal fin, y de conformidad con lo dispuesto en los Decretos 84/1993, de 30 de marzo de 1993, de creación y modificación respectivamente del Registro de Explotaciones Agrarias del País Vasco, la Oficina encargada del Registro de Explotaciones Agrarias de cada Territorio Histórico verificará si se cumplen dichos requisitos y procederá, previa su solicitud por el interesado, a la calificación como «explotación agraria prioritaria» de la explotación que se trate, si procede.

Asimismo las Oficinas del Registro extenderán las certificaciones relativas a dicha calificación, en su caso.

3.– De conformidad con lo dispuesto en la Orden de 13 de diciembre de 1995 por la que se desarrolla la Ley 19/1995, las variaciones producidas en la renta unitaria de trabajo en una explotación prioritaria durante los cinco años siguientes al de su calificación como tal a consecuencia de la actualización anual de módulos y márgenes netos previstos en el apartado 2 del artículo 4 del presente Decreto, no surtirán efecto sobre su calificación, durante el referido periodo.

ALDIBATERAKO XEDAPENAK

Lehenengoa.– 1998ko abenduaren 31ra arte, lehen-tasuneko nekazaritza-ustiapentzat hartuko dira nekazaritzako lan-unitate erdia, gutxienez, betetzen duten familiako nekazaritza-ustiapenak, betiere, dekretu honetako 4. eta 5. ataletan jasotako betekizunak betetzen baldin badituzte.

Bigarrena.– 1997. urterako, hainbat laborantzari dagozkion marjina gordinak dekretu honetako I. Eranskinean jasotako irizpide teknikoan arabera kalkulatu dira.

Hirugarrena.– 1997. urterako, nekazaritza-ustiategi bateko nekazaritzako lan-unitateak zehazteko moduluak dekretu honetako II. Eranskinean jasotakoak izango dira.

Laugarrena.– 1997. urterako, erreferentziako errentaren zenbatekoa 2.769.215 PTAkoa izango da.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Eusko Jaurlaritzako Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburuari eta foru aldundietako organo eskudunei ahalmena ematen zaie, beren eskumenen barruan, dekretu hau garatzeko eta aplikatzeko.

Bigarrena.– Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1997ko uztailaren 8an.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburua,
JAVIER RETEGUI AYASTUY.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

Primera.– Hasta el 31 de diciembre de 1998, tendrán la consideración de explotaciones agrarias prioritarias aquellas explotaciones agrarias familiares que ocupen, al menos, media unidad de trabajo agrario, siempre que reúnan los restantes requisitos contemplados en los artículos 4 y 5 del presente Decreto.

Segunda.– Para el año de 1997, los márgenes brutos correspondientes a los diversos cultivos se calcularán de conformidad con los criterios técnicos recogidos en el Anexo I del presente Decreto.

Tercera.– Para el año 1997, los módulos para la determinación de las unidades de trabajo agrario correspondientes a una explotación agraria serán los recogidos en el anexo II del presente Decreto.

Cuarta.– Para 1997, el importe de la renta de referencia es de 2.769. 215 PTA.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Se faculta al Consejero de Industria, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco y a los Órganos Forales competentes para el desarrollo y aplicación del presente Decreto en el ámbito de sus respectivas competencias.

Segunda.– El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 8 de julio de 1997.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Industria, Agricultura y Pesca,
JAVIER RETEGUI AYASTUY.